



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abuztuaren 12

80. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina. (2. or.).
- Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina. (22. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Eguesibarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra.(4. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (5. or.).
- V. Ondoren gertatutakoak (5. or.).
- VI. Azken ondorioa (6. or.).
- VII. 2006ko egoera-orriak (7. or.).
 - VII.1. Diru-sarrerak eta gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera (7. or.).
 - VII.2. Aurrekontuko emaitzaren kalkulua (8. or.).
 - VII.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (8. or.).

VII.4. Ratioak (9. or.).

VII.5. Egoeraren balantzea (10. or.).

VII.6. Galdu-irabazien kontua 2006ko eta 2005eko abenduaren 31n (11. or.).

VIII. Iruzkina eta gomendio orokorrak (13. or.).

VIII.1. Orokortasunak, aurrekontua eta aldaketak (13. or.).

VIII.2. Administrazio-kontratazioa (13. or.).

VIII.3. Ibilgetua-inbentarioa (13. or.).

VIII.4. Diru-sarrerak (13. or.).

VIII.5. Gorabeherak (13. or.).

VIII.6. Hirigintza (14. or.).

VIII.7. Andazelay, SL, eta Gestión y Promoción Egüés 21, SA (14. or.).

Eranskina: Andazelay SL sozietatearen balantze laburtua eta galera eta irabazien kontua (Pág. 16).

Eguesibarko Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (Pág. 18).

Eguesibarko Udaleko alkateak 2006ko behin-behineko txostenari egin dizkion alegazioei emandako erantzuna (Pág. 20).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Eguesibarko Udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Eguesibarko Udalak 53,5 km²-ko azalera du. 5.379 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2006-12-31n
Udala	10.047.255,92	18.068.070,05	76
GUZTIRA	10.047.255,92	18.068.070,05	76

Udala da 2004ko urrian eratutako Andazelay SL sozietatearen akziodun bakarra. Sozietate horren kapitala 4.000 eurokoa da eta, 2006ko ekitaldian, 37.328,75 euroko irabaziak izan ditu.

Bestalde, Andazelay SL sozietateak 153.000 euroko partaidetza du –% 51– 2005ean eratutako Gestión y Promociones Egüés 21 SA sozietatean. Sozietate horren xede soziala da era guztietako higiezinak erosi eta eraikitzea, bai eta higiezinak sutatzea, urbanizatzea, kudeatzea eta merkaturatzea eta jarduera horiekin zerikusia duen eta horien osagarriak den beste edozein jarduera ere.

Halaber, Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

Eguesibarko Udalarari 2006ko ekitaldian aplika zekiokkeen erregimen juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekon-

tu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Eguesibarko Udalaren betetze-oinarriak.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren noraino-koa; eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezko-tasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean fiskalizatzen ari garen ondorengo ekitaldiko gertaerak jaso ditugu eta seigarrenean, berriz, gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak. Zazpigarren atalean finantzen egoerorien laburpen bat jaso dugu, eta, zortzigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolake-ta eta –kontrola hobetzeko egokitzen jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Horretaz gain, eranskin batean jaso ditugu Andazelay SL sozietatearen balantze laburtua eta galera eta irabazien kontua.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Eguesibarko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa (finantzariora eta legezko-tasunari buruzkoa) egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- a) Eguesibarko Udalaren 2006ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinene-tan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2006ko ekitaldian izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Eguesibarko Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu horretan sartuta dago Udalarena beraren kontua. Hona hemen finantza egoera-orri esanguratsuenak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

- Zorraren egoera.

- Entitatearen egoera-balantzea.

- Entitatearen galera eta irabazien kontua.

- Andacelay SL sozietatearen egoera-balantzea.

Udalak ez ditu sartu kontu orokorraren eranskin gisa, 272/1998 Foru Dekretuaren 392. d) arauan ezarri bezala, Gestión y Promoción Egúés 21 SA sozietateari buruzko datuak, zeinaren ehuneko 51eko partaidetza baitu bere osotasunean Udalaren kapitalaz osaturiko Andacelay SL sozietateak.

Udalak aplikaturiko kontabilitate-araubidea jasota dago 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolerako alderdi nabarmenenak.

Ez da egin Andazelay SL udal titulartasuneko sozietatearen urteko kontuen auditoria, ez eta aipatu sozietatearen ehuneko 51ko partaidetza

duen Gestión y Promoción Egúés SA sozietatearen kontuena ere.

Andazelay SL sozietate publikoak badu kanpo-auditoreek eginiko auditoria finantzarioari buruzko txostena. Txosten horretan ez dago jasota legezketasun-auditoria eta salbuespenik gabeko iritzia adierazten du.

Eranskinean sartu ditugu, informazio gisa, Andazelay SL sozietatearen kontuak.

Txostenean jasotzen dira udalaren eta bere menpeko entitateen antolamendua hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Eguesibarko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen VI. atalean.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Udalak ez ditu sartu kontu orokorraren eranskin gisa Gestión y Promoción Egúés 21 SA sozietateari buruzko datuak, zeinaren gehiengo partaidetza baitu Udalak Andacelay SL sozietatearen bitartez.

Aurreko lerroketan aipaturiko salbuespenengatik izan ezik, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinengatik, bere gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun printzipioari jarraituz garatu da. Hala ere, ez dira bete lurzoruaren udal ondareari buruzko lege-zehaztapenak.

IV.3. 2006KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

Diru-sarrerei dagokienez, hasierako aurrekontua 14 milioi eurokoa da –2005ean 11 milioi euro-

koa izan zen— eta behin betikoa 18 milioi eurokoa. Gastuei dagokienez, berriz, aurrekontua 17 milioi eurokoa da. Betetze-maila ehuneko 98,13koa da dirusarrerei dagokienez eta ehuneko 57,29koa gastuei dagokienez.

Betetze-maila txikiena duten gastuen kapituluak dira inbertsioei eta aktibo finantzarioei buruzkoak. Lehenengoan bada bost milioi euroko aurreikuspen bat, diruzaintzako soberakinak direla-eta, aktibo finantzarioak eskuratzeko, baina aurreikuspen hori ez da gauzatu. Inbertsioen betetze-maila ehuneko 67koa izan da.

Ekitaldia ixtean zorra 1,8 milioi eurokoa da —2005ean 2,2 milioi eurokoa zen—, eta 2006ko ekitaldian ez da beste mailegurik sinatu.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza doitua 11,8 euroko superabita zen (790.651 euroko defizita 2005eko ekitaldian).

Nabarmendu behar da 2006ko ekitaldiko eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren (EIOZ) dirusarrerek 10,2 milioi euro egin dutela (2005ean 1,5 milioi euro egin zuten).

Ekitaldia ixtean, udalaren finantza-egoeraren ezaugarriak hauek ziren: dirusarrera arrunten ehuneko 2,49ko zorpetze-maila, ehuneko 65,04ko zorpetze-muga, bederatzi milioi euroko aurrezpen garbia eta zortzi milioi euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Datu hauetan ez daude jasota udala partaide bakarra edo nagusia duten sozietateei buruzkoak.

V. ONDOREN GERTATUTAKOAK

Gure lanaren denbora-esparrua 2006ko ekitaldia da. Hala ere, azterlana egin bitartean udalaren enpresa publikoek eginiko zenbait eragiketen berri izan dugu, eta bidezkoa iruditzen zaigu horiek aipatzea. Honako hauek dira:

Administrazio Kontseiluaren 2007ko apirilaren 18ko Erabakiaren bidez, Andazelay SL sozietateak 3A-9 izeneko lurzatia saldu zion Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateari, 6.719.001,49 euroan (BEZa barne). Gainera, sozietate hori da lurzati horretan eraikiko diren 114 prezio tasatuko etxebizitzien eta 48 babes ofizialeko etxebizitzien sustaile.

3A-9 lurzatia udalak Andazelay SL-ri doan lagatutakoa zen, 2006ko uztaileko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez, eta lagatu zen, hain zuzen, “Sarrigurengo ekohirian etxebizitza babestuen eta erabilera komunitarioak sutatzeko Udalez Gai-diko Plan Sektorialari dagokion desjabetze proiektuaren ondorioz lagatu beharreko hirigintza aprobe-

txamenduaren ehuneko hamarraren zati baten ordainketa gisa”.

Aurrekoarekin lotuta, uste dugu Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228.2 c) artikulua baimena ematen diela udalei beren ente instrumentalei lurzatiak eskualdatzea, zuzenean eta are dohainik, etxebizitzien sustapen publikorako, ekipamendu komunitarioak eraikitze edota erabilera publikoko edo interes sozialeko bestelako instalazioak egiteko. Horrenbestez, aipatu lurzatia, bere osotasunean udalaren jabetzakoa dena, Andazelay SL sozietateari eskualdatzeak badu aipatu arauaren babesa eta, halaber, lurzati hori lurzoruaren udal ondareak berezkoak dituen helburuei atxikita dago. Hala ere, Andazelay SL-k Gestión y Promoción Egüés 21 SA merkataritza-sozietateari eginiko zuzeneko besterentzea lizitazio publikoaren bidez egin behar zen, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228.2 c) artikulua araber.

Lurzoruaren udal ondareko lurzati hori alde aurreko lizitaziorik gabe esleitzeak gehienbat titulartasun publikokoa den merkataritza-sozietate bati, zeinaren partaide baita, neurri txikian bada ere, enpresa pribatu bat, eragiten die lehia askeari eta tratu-berdintasunaren printzipioari; izan ere, prozedura horrek, besteak beste, abantaila emanen lioke aipatu enpresaren kapitalean partaidetza duen enpresa pribatu bati bere lehiakideen aurrean.

Aipatu lurzatiaren etxebizitzak eraikitze lanen esleipenari dagokionez, lan horiek esleitu zitzaizkion enpresa publiko mistoaren partaide den sozietateari, nahiz eta partaidetza txikia izan, kontuan hartu gabe kontratuaren zenbatekoaren arabera jarraitu beharreko lizitazio irekiaren edota publikotasun eta lehiadun lizitazio murriztuaren prozedura.

Halaber, Sociedad Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateak baliatutako esleipen-prozeduran, sozietate horrek hiru kidez osatutako kontratuzio-mahaia izendatu zuen, eta kide horietako bat partaidetza txikiena zuen enpresaren ordezkaria zen. Horretaz gain, igorri ziren hiru gonbidapenetatik bat partaidetza txikiena zuen enpresarentzat izan zen, eta hori izan zen, hain zuzen, puntuazio altuena lortu zuena balorazioetan eta, ondorioz, esleipena jaso zuena.

Finean, Comptos Ganberaren ustez, hirigintza-kudeaketa ahalik eta gardentasun eta kontrol maila handienarekin egin behar da. Horrekin lotuta, udalak zenbait hirigintza-sozietate sortu izanak administrazioak berezkoa duen jardura hori egiteko zailagoa egiten du printzipio horiek betetzea

eta udalak aipatu jarduera antolatzea eta kudeatzea.

Beraz, hau da gure gomendioa: udalak bere burua antolatzeko ahalmena duenez bai eta autonomia ere udal-hirigintza kudeatzeko egokien irizten dion modua aukeratzeko, azter dezala gaur egun jarduera hori kudeatzeko modua, hirigintza-sozietateen bidezkoa, bai eta kudeaketa-eredu hori bat datorren aipatu jarduerak bilatu beharreko interes publikoaren helburuarekin.

Halaber eta betiere gomendatzen dugu hertsiki errespeta daitezela hirigintzaren eta kontratazio publikoaren alorreko legediak ezarritako irizpideak eta prozedurak, zeinek bermatzen duten zenbait printzipio betetzea, hala nola tratu-berdintasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna eta publikotasuna, bai eta jarduera hori guztia udalak behar bezala kontrolatzea ere.

VI. AZKEN ONDORIOA

Laburbilduz, Comptos Ganberak adierazten du eginiko fiskalizazioaren ondorioz Eguesibarko Udalak, prozedurak hobetzearen, beharrezkoa du:

- *Aurrekontua legez ezarritako epeetan onetsi behar da, udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariorako tresna gisa erabili ahal izateko. Era berean, beharrezkoa da eginiko gastuaren kontrol zorrotza eramatea eta aurrekontuen aldaketak izapidetzea aurrekontuan diru nahikorik ez dagoenean.*

- *Sartu behar da, kontu orokorraren eranskin gisa, udalak gehiengo partaidetza duen Gestión y Promociones Egüés 21, SA sozietatearen urteko kontua.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere espedienteak formalizatzeari buruzko alderdi batzuei dagokienez.*

- *Zorrozki errespeta behar da Udalak ematen dituen dirulaguntzen deialdien oinarrietan ezarritakoa, bereziki onuradunei eskatu beharreko dokumentazioari eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzeari buruzko alderdiei dagokienez.*

- *Kontuan hartu behar da Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ondoriozko dirusarreak ezin direla errepikaritzat hartu; hori dela eta, beharrezkoa izanen da dirusarrera eta gastu errepikariak aztertzea, gastu arruntaren egitura egokia zehazte aldera.*

- *Hirigintza-plangintza moldatu egin behar da Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen zehaztapenetara eta lurzoruaren udal ondareari buruzko zehaztapenak bete behar dira.*

- *Legeak toki entitateen mendeko merkataritza-sozietateetarako ezartzen duen kudeaketa ekonomikoari buruzko barne kontrola bete behar da, bai kontrol finantzarioa bai eraginkortasunari buruzkoa.*

- *Udal kapitaleko sozietateen kontratu jardueran nahitaez ezarri behar diren publikotasunaren eta lehiaren printzipio orokorrak errespetatzea.*

VII.I. DIRUSARRERAK ETA GASTUAK, KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA

Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Dirusareren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betea (%)	Kobratutakoa, guztira	Kobrantsak (%)	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	1.305.100,00		1.305.100,00	1.403.464,72	108	1.301.897,24	93	101.567,48
Zeharkako zergak	9.863.630,70		9.863.630,70	10.239.249,94	104	8.348.818,73	82	1.890.431,21
Tasak, prezio publikoak eta -sarrera batzuk	1.163.525,00		1.163.525,00	1.294.328,75	111	1.155.248,24	89	139.080,51
Transferentzia aruntak	1.350.815,48	10.576,83	1.361.392,31	1.465.831,27	108	1.387.428,23	95	78.403,04
Ondare dirusarrerak eta m.	146.650,00		146.650,00	109.506,58	75	91.552,45	84	17.954,13
INBERTSIO ERREALAK	0,00		0,00	3.270.588,26	-	3.270.588,26	100	0,00
Kapital-transferentziak	258.381,52	55.501,43	313.882,95	284.500,52	91	242.668,37	85	41.832,15
Aktibo finantzarioak	601,00	4.258.172,52	4.258.773,52	601,01	0	0,00	0	601,01
Pasibo finantzarioak	0,00		0,00	0,00	-	0,00	-	0,00
	14.088.703,70	4.324.250,78	18.412.954,48	18.068.071,05	98	15.798.201,52	87	2.269.869,53

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betea, (%)	Ordaindutakoa, guztira	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	2.556.400,00	-41.300,00	2.515.100,00	2.529.715,49	101	2.486.169,14	98	43.546,35
2. Gastuak, ondasun aruntetan eta zerbitzuetan	2.044.797,22	97.670,00	2.142.467,22	2.048.850,59	96	1.706.689,83	83	342.160,76
3. Finantza-gastuak	0,00	25,00	25,00	107,99	432	71,12	66	36,87
4. Transferentzia aruntak	525.646,48	-6.444,56	519.201,92	495.137,57	95	412.159,23	83	82.978,34
6. Inbertsio errealak	2.583.760,00	4.274.300,34	6.858.060,34	4.605.663,68	67	3.001.710,63	65	1.603.953,05
7. Kapital-transferentziak	17.100,00		17.100,00	7.173,34	42	0,00	0	7.173,34
8. Aktibo finantzarioak	6.000.000,00	-875.464,77	5.124.535,23	0,00	0	0,00	-	0,00
9. Pasibo finantzarioak	361.000,00		361.000,00	360.607,26	100	360.607,26	100	0,00
Gastuak, guztira	14.088.703,70	3.448.786,01	17.537.489,71	10.047.255,92	57	7.967.407,21	79	2.079.848,71

VII.2. AURREKONTUKO EMAITZAREN KALKULUA

Aurrekontu-emaiza

	2006	2005
Aitorturiko eskubideak	18.068.070,00	5.975.519,00
(Aitorturiko betebeharrak)	10.047.256,00	7.539.169,00
Aurrekontu-emaiza	8.020.814,00	-1.563.650,00
(Finantzaketaren desbideraketa positiboak)	(80.366,00)	(46.744,00)
Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboa	4.706,00	115.694,00
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak		
Aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko betebeharrak	3.839.363,00	704.048,00
Aurrekontuko emaitza behin betikoa	11.784.517,00	-790.652,00

VII.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2006	2005
Dirusameren aurrekontua: jadaneko ekitaldia	2.269.758,64	741.565,71
Dirusameren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	844.368,19	856.504,23
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	955.962,52	182.865,24
Ordainketen itzulketak	31,16	11.000,00
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(828.518,43)	(809.548,40)
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	(1.594,32)	(643,75)
Kobratzeko dauden eskubideak	3.240.007,76	981.743,03
Gastuen aurrekontua: jadaneko ekitaldia	2.079.848,71	1.752.522,09
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	20.055,87	41.315,55
Dirusameren itzulketak	0,00	109,89
(Aplikatzeko dauden gastuak)	(473,00)	(473,00)
Aurrekontuz kanpoko gastuak	760.178,93	195.222,52
Ordaintzeko dauden betebeharrak.	2.859.610,51	1.988.697,05
Diruzaintzako funts likidoak	10.849.104,52	4.271.259,75
Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak	34.865,40	118.402,00
Diruzaintza-gerakina, orotara	11.264.367,17	3.382.707,73
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	3.253.254,00	4.258.172,50
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	8.011.113,17	(875.464,77)

VII.4. RATIOAK

ADIERAZLEA	2005	2006
Diru-sarreraren betetze-maila	% 55,79	% 98,13
Gastuen betetze-maila	% 70,39	% 57,29
Kobrانتzen betetzea	% 87,59	% 87,44
Ordainketen betetzea	% 76,75	% 79,30
Zorpetze-maila	% 7,91	% 2,49
Zorpetze-muga	% 94,55	% 65,04
Zorpetze-ahalmena	% 86,64	% 62,55
Aurrezpen garbia	% -3,69	% 62,55
Langileriaren indizea	% 30,78	% 25,18
Inbertsioaren indizea	% 36,75	% 45,84
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	% 31,30	% 9,69
Diru-sarrerak biztanleko	1.217	3.368
Gastuak biztanleko	1.535	1.873
Diru-sarrera arruntak biztanleko	933	2.706
Gastu arruntak biztanleko	894	946
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanle bakoitzeko	646	2.412
Finantza-zama biztanleko	74	67
Zorra biztanleko	440	336

VII.5. EGOERAREN BALANTZEA

AKTIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1 Ibilgetu materiala	26.989.799,55	25.360.586,98	1.629.212,57
2 Ibilgetu ez-materiala	374.721,69	310.382,14	64.339,55
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	12.314.346,98	12.285.469,88	28.877,10
4 Herri ondasunak	36.241,22	36.241,22	0,00
5 Finantza-ibilgetua	38.203,03	38.803,04	-600,01
A) IBILGETUA	39.753.312,47	38.031.483,26	1.721.829,21
7 Izakinak	0,00	0,00	0,00
8 Zordunak	4.070.120,41	1.791.935,18	2.278.185,23
9 Finantza-kontuak	10.849.578,74	4.271.734,21	6.577.844,53
10 Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak.	0,00	0,00	0,00
11 Aplikatzeko dagoen emaitza	0,00	718.304,55	-718.304,55
C ZIRKULATZAILEA	14.919.699,15	6.781.973,94	8.137.725,21
AKTIBOA, GUZTIRA	54.673.011,62	44.813.457,20	9.859.554,42

PASIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1 Ondarea eta erreserbak	37.187.499,39	38.113.321,74	-925.822,35
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	10.073.877,61	0,00	10.073.877,61
3 Kapital-dirulaguntzak	2.697.216,23	2.494.255,73	202.960,50
A FUNTS BEREKIAK	49.958.593,23	40.607.577,47	9.351.016
4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.803.036,33	2.163.643,59	-360.607,26
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	1.803.036,33	2.163.643,59	-360.607,26
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.909.787,74	2.041.592,39	868.195,35
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak	1.594,32	643,75	950,57
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.911.382,06	2.042.236,14	869.145,92
PASIBOA, GUZTIRA	54.673.011,62	44.813.457,20	9.859.554,42

GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2006KO ETA 2005EKO ABENDUAREN 31N

Emaiza arrunten kontua 2006ko abenduaren 31n

	Azalpena	2006	2005		Azalpena	2006	2005
3	Hasierako izakinak	0,00	0,00	3	Amaierako izakinak	0,00	0,00
	Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko homikuntza (ekitaldiko homikuntza)	0,00	0,00	39	Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko homikuntza (ekitaldiko homikuntza)	0,00	0,00
60	Erosketak	0,00	0,00	70	Salmentak	1.069.541,24	340.268,93
61	Langile-gastuak	2.620.761,30	2.333.307,52	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	273.501,59	176.728,97
62	Finantza-gastuak	107,99	1.778,99	72	Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	11.182.800,29	2.346.833,21
63	Zergak	352,79	0,00	73	Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	192.011,08	167.111,06
64	Kanpoko lan, homidura eta zerbitzuak	1.970.579,38	1.723.278,75	75	Ustiapen-dirulaguntzak	0,00	0,00
65	Gizarte prestazioak	0,00	0,00	76	Transferentzia arruntak	1.465.831,27	1.340.136,04
66	Ustiapen-dirulaguntzak	0,00	0,00	77	Kapitalaren gaineko zergak	267.903,29	180.149,22
67	Transferentzia arruntak	495.137,57	365.511,29	78	Bestelako dirusarrerak	142.332,52	222.565,22
68	Kapital-transferentziak	7.173,34	12.815,59	79	Daukaten helbururako aplikaturiko homikuntzak	0,00	0,00
69	Amortizazio eta homiduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	0,00	0,00				
800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	9.499.808,91	337.100,51	800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00
	GUZTIRA	14.593.921,28	4.773.792,65		GUZTIRA	14.593.921,28	4.773.792,65

Emaiza berezien kontua 2006ko abenduaren 31n

	Azalpena	2006	2005		Azalpena	2006	2005
152				196	Zorren jasotze-balioaren eta jaulkitze-balioaren arteko aldea (etekina)	0,00	0,00
153	Zorren jasotze-balioaren eta jaulkitze-balioaren arteko aldea	0,00	0,00	180,5	Fidantzapeko betebeharren etekinak	0,00	0,00
195				20			
196	Zorren erosketa-balioaren eta jaulkitze-balioaren arteko aldea	0,00	0,00	20	Ibilgetuko elementuak,		
20,2	Ibilgetuaren elementuen besterentzea, galerak	0,00	21.199,96	23	dohainikako eskurapenak	0,00	0,00
20,23	Ibilgetuko ondasunengatik izandako galerak eta minusbalioak	1.586.674,67	1.227.651,74	20,2			
270	Fidantzapeko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko galerak	0,00	0,00	1,23	Ibilgetuko ondasunek izandako gainbalioak	2.194.673,66	0,00
540					Bestelako abonu-arrazoiak	0,00	202.147,24
	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	607.998,99	0,00	82	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	1.046.704,46
	GUZTIRA	2.194.673,66	1.248.851,70		GUZTIRA	2.194.673,66	1.248.851,70

Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketen kontua 2006ko abenduaren 31n

	Azalpena	2006	2005		Azalpena	2006	2005
43	Deuseztaturiko eskubideengatik	4.894,84	606,45	43	Aitorturiko eskubideen saldoaren zuzenketengatik	-37.114,03	-14.766,57
40	Aitorturiko betebeharren saldoaren zuzenketengatik	-792,40	-6.667,23	40	Preskribaturiko betebeharrengatik	7.286,18	0,00
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	0,00	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	33.930,29	8.705,79
	GUZTIRA	4.102,44	-6.060,78		GUZTIRA	4.102,44	-6.060,78

Emitzen kontua 2006ko abenduaren 31n

	Azalpena	2006	2005		Azalpena	2006	2005
80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00	80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	9.499.808,91	337.100,51
82	Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0,00	1.046.704,46	82	Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	607.998,99	0,00
83	Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00	83	Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0,00	0,00
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	33.930,29	8.705,79	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	0,00
89	Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	10.073.877,61	0,00	89	Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0,00	718.304,55
	GUZTIRA	10.107.807,9	1.055.410,25		GUZTIRA	10.107.807,90	1.055.405,06

VIII. IRUZKINAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VIII.1. OROKORTASUNAK, AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarria onetsi behar da legedi indardunean ezarritako epeei eta edukari jarraikiz.*

- *Aurrekontuaren eranskinen zerrendan sartu behar dira Udalaren gehiengo partaidetza duen Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatearen gastu eta dirusarreraren aurreikuspen egoerak.*

*Lotura-multzoen arabera, 2006ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan, 1., 2., 3. eta 6. kapitulu-
etako zenbait gasturi aurre egiteko kredituak*

132.122,71 eurotan gainditu dira, horretarako behar diren aurrekontu aldaketak onetsi gabe.

- *Aurrekontu-aldaketako espediente guztietan erantsi behar da kontu-hartzaitzaren nahitaezko txostena. Halaber, espediente horiek kasuan kasuko ekitaldia itxi baino lehen izapidetu behar dira.*

- *Udalaren kontu orokorrean sartu behar dira, eranskin gisa, Udalaren gehiengo partaidetza duen Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateari buruzko datuak.*

- *Zorren egoera-orrian aurkeztea legez araututako informazioa Udalaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei buruz: Andazelay SL eta Gestión y Promoción Egüés 21 SA.*

- *Legeak toki entitateen mendeko sozietateentzat ezarritako kontrol finantzarioa eta eraginkortasunari buruzkoa betetzea.*

VIII.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
Zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa, Sarrigurengo kirol-hiriaren 2. fasea.	Laguntzarako kontratua	Lehiaketa irekia	119.307
Olazko haurrentzako parkearen instalazioa	Obra	Lehiaketa irekia	118.280
Sarrigurengo kirol-hiriko kanpoko igerilekuak. II B fasea.	Obra	Lehiaketa irekia	1.361.293
Uztarrozkoko eliza zaharberritzea.	Obra	Enkantea	218.249

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

Sarrigurengo kirol-hiriko kanpoko igerilekuen II B faseko obrak egiteko kontratua epez kanpo egin da.

Eliza zaharberritzeko lanak onartzeko akta eragozpenik gabe sinatu zen 2008ko otsailean, 2006ko abuztuan eginiko zuinketa aktan lanak bukatzeko ezarritako bost hilabeteko epea amaitu eta urtebetera.

Hona gomendioak:

- *Lanak egiteko epeen kontrola eta jarraipena egiten dela jasota utzi behar da.*

VIII.3. IBILGETUA-INBENTARIOA

- *Prozedura egokiak ezarri behar dira ibilgetua erregistratu eta kontrolatzeko.*

VIII.4. DIRU-SARRERAK

- *Udalak eman beharreko dirulaguntzen oinarrietan ezarritako baldintzak zorrotz bete behar dira.*

- *Ekitaldi batean aplikatzekoak diren musika eskolari dagozkion tasak argitaratu behar dira ekitaldi hori hasi baino lehen.*

VIII.5. GORABEHERAK

2006ko abenduaren 31n bost auzi zeuden ebazteko, hainbat jurisdikziotan aurkeztuak, eta haietako batzuen balorazio ekonomikorik egiterik

ez dago prozesuaren une honetan, baina Udalari arriskua ekar diezaiokete aurrerago; arrisku hori, gutxienez ere, 403.007 eurokoa da.

VIII.6. HIRIGINTZA

Eguesibarko Udal Plana 2000ko ekaineko Osoko Bilkuran onetsi zen.

2006an hasi zen Eguesibarko Udal Plan Orokorra berrikusteko prozedura.

Gaur egun, aipatu plana oraindik ez da egokitu Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritakora.

Udalak ez ditu bereizirik kudeatzen ez eta erregistratzen ere lurzoruaren udal ondarearen osagaiak. Hala ere, diruzaintzako gerakinari buruzko egoera-orria aurkezterakoan, bertan jaso da baliabide atxikien egoera-orria, bai eta ekitaldian izandako mugimenduak ere.

Baliabide atxikiei buruzko egoera-orri horretan ez daude jasota Udalari eman beharreko hirigintza aprobetxamenduaren ehuneko 10 diruz ordezkatzegatik eratorritako dirusarrerak, 81.540 euro egiten dutenak.

Hona gomendioak:

- *Hirigintza-plangintza LFOTUren zehaztapenetara moldatzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea, eta bertan jasotzea sartzen diren lurrak edo dirua, bai eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak ere.*

- *Udal ondasunen inbentario orokorrean adierazi eta zehaztu behar dira udalaren lurzoru-ondarekoak direnak, bai eta haiek hirigintza-arloko legedian ezarrita dauden helburuei lotuta egotea ere.*

VIII.7. ANDAZELAY SL ETA GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21 SA.

Udalak partaidetza du Andazelay SL sozietatean, eta honek, era berean, partaidetza du Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatean.

Andazelay SL sozietatea 2004ko urriaren 8an eratu zen, 4.000 euroko kapitalarekin –kapital osoa Udalak izenpetu eta ordaindu du–. Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatea, berriz, 2005eko uztailaren 5ean eratu zen. Sozietatea horren kapital soziala 300.000 eurokoa da; horren ehuneko 51 Andazelay SL sozietatean izenpetua

da eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batek izenpetua da.

2005ean sozietate mistoa eratzeari dagokionez, hona hemen datu batzuk:

2005eko otsailaren 15eko Osoko Bilkuran, udalak administrazio-klausulen orria onetsi zuen, sozietate anonimo mistoa eratze aldera.

Administrazio-klausulen orriaren arabera, deialdiaren xedea da Andazelay SL-k eta hirigintza-jardueretarako eta etxebizitza-sustapenerako kudeaketaren esleipen-hartzaileak sustatu behar zuten sozietate mistoaren bazkide bat hautatzea. Aipatu hirigintza-jardueri dagokienez, zehazten da etxebizitza babestuen sustapen izanen dela, Sarriguren 3B4 lurzatian. Gainera, baldintza orrian esaten da jarduerak beste arlo batzuetara zabaldu ahalko direla etorkizunean.

Lehiaketa prentsan bakarrik iragarri zen –aginduzkoa da Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragaritzea– eta hiru eraikuntza-enpresa aurkeztu ziren.

Andazelay SL sozietatearen administrazio kontseiluak, 2005eko uztailaren 1ean eginiko bileran, erabaki zuen “sozietate anonimo misto bat eratzea, lehiaketa irabazten zuen eraikuntza-enpresa-rekin.”

Gogorazi behar da toki entitateak edo hari lotutako entitateek kontratu publikoei buruzko foru legediko xedapen aplikagarriekin bat hautatuko dituztela bazkide pribatu edo pribatuak, zerbitzu publiko bat merkataritza-sozietate baten bidez kudeatzeko, baldin eta kapitala hein batean soilik bada toki entitatearena, eta, halaber, publikotasuna eta lehia askea bermatuko direla, kontuan hartuta sozietate misto horren xede soziala.

Geroago xede sozial hori aldatu izanak, edota hasiera batean aurreikusi gabeko hirigintza-eragiketetara zabaltzeak –hala nola hurrengo gertakarietan 3A-9 lurzatiari buruz aipatzen dena–, eskatzen du, publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak errespetatzen jarraitzeko, berriro ere lizitazio publikoa egitea, enpresa mistoaren xede sozial berrira egokitua.

Halaber, eta sozietate mistoak hirugarrenekin egiten duen kontratazioari dagokionez, gogoratu behar da toki sektore publikoa osatzen duten entitateek kontratazio publikoari buruzko araudia aplikatu behar dutela beren kontratuak prestatu eta esleitzerakoan.

Hori horrela:

- *Gure gomendioa da zorrozki betetzea Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legean ezarritako printzipioak, bai eta kontratu publikoen*

alorreko printzipio zuzentzaileak, hau da: tratu berdintasuna, prozeduren gardentasuna, lehia askea, objektibotasuna eta publikotasuna.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko otsailaren 9an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ETA IRABAZIEN KONTUA**Balantze laburtua – 2005 eta 2006ko ekitaldiak****AKTIBOA**

	2006-12-31	2005-12-31
Ibilgetua	153.000	153.000
Ibilgetu finantzarioa	153.000	153.000
Aktibo zirkulatzailea	7.619.372	2.102.491
Izakinak	4.743.854	0
Zordunak	768.125	2.591
Diruzaintza	2.107.392	2.099.900
Aktiboa, guztira	7.772.372	2.255.491

PASIBOA

	2006-12-31	2005-12-31
Norberaren fondoak	2.283.110	2.245.781
Sozietatearen kapitala.	4.000	4.000
Emeserbak	2.241.781	0
Galdu-irabaziak – Etekina (galera)	37.329	2.241.781
Banatu beharreko diru-sarrerak. Zenbait ekitaldi.	4.725.741	0
Epe laburreko hartzekodunak	763.521	9.710
Aktiboa, guztira	7.772.372	2.255.491

2006KO ETA 2005EKO EKITALDIETAKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA

GASTUAK	2006	2005	DIRU-SARRERAK	2006	2005
Ustiapeneko kontsumoa	0	2.252.810	Ustiapeneko diru-sarrerak:	-	2.246.260
Bestelako ustiatze-gastuak	25.196	4.278	Negozio-zifraren ehunekoa	-	2.246.260
I. USTIATZE-MOZKINAK	-	-	I. USTIATZE-GALERAK	25.196	10.828
			Diru-sarrera finantzarioak	62.629	7.109
Diru-sarrera finantzarioak	9	125	Beste batzuk	62.629	7.109
II. FINANTZA-EMAITZA POSITIBOAK	62.629	7.109	II. FINANTZA-EMAITZA NEGATIBOAK	-	-
III. JARDUERA ARRUNTETAKO MOZKINAK	37.434	-	III. JARDUERA ARRUNTETAKO GALERAK	-	3.719
			Ekitaldiko emaitzara pasatutako dirulaguntzak	-	2.252.810
IV. OHIZ KANPOKO EMAITZA POSITIBOAK	-	2.252.810	IV. OHIZ KANPOKO EMAITZA NEGATIBOAK	-	-
V. ZERGA AURREKO MOZKINAK	37.434	2.249.091	V. ZERGA AURREKO GALERAK	-	-
Mozkinen gaineko zerga	105	7.310			
VI. EKITALDIKO EMAITZAK (MOZKINAK)	37.329	2.241.781	VI. EKITALDIKO EMAITZAK (GALERAK)	-	-

EGUESIBARKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Eguesibarko Udaleko alkate José A. Andía García de Olalla jaunak, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, ondokoa dio:

2009ko urtarrilaren 26an jaso duela Eguesibarko Udalaren 2006ko ekitaldiko fiskalizazio txostena.

Hura aztertuta, eta hamar egun naturaleko epearen barruan, idatzi honek bidez aurkeztu nahi ditu ondoko ALEGAZIOAK:

LEHENENGOA.- Fiskalizazio txostena 2006ko ekitaldiari buruzkoa denez, ekitaldi horretara mugatu beharko litzateke.

BIGARRENA.- Fiskalizazio txostenean –esaterako, txostenaren 10. orrialdean– aipatzen dira 2007ko ekitaldiko jarduerak eta erabakiak, hala nola Andazelay SL udal sozietateak Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateari lurzati bat saldu izana; izan ere, salmenta hori 2007ko apirilaren egin zen.

Salmenta horri dagokionez, txostenean esaten da lizitazio publikoaren bidez egin behar zela.

Horri buruz esan behar da Andazelay SL udal sozietatea zuzenbide pribatuko enpresa-entitate bat dela, zeinak merkataritza-enpresen araubideari jarraikiz jarduten baitu eta bere jardura araubide juridiko pribatura egokitzen baita. Halaber, aipatzen den eskualdatze-kontratu salerosketa kontratu pribatu bat da. Horri jarraikiz, kontratu hori 6/2006 Foru Legearen aplikazio-esparrutik kanpo geratzen da.

Txostenean esaten denez, Andazelay SL sozietateak eginiko besterentzea lizitazio publikoaren bidez egin behar zen, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228.2 c) artikularen arabera.

Horri buruz esan behar da Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228.2 c) artikuluan ezarritakoa ez zaiola aplikatzekoa Andazelay SL sozietateak eginiko eskualdatzea, berriz, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228. artikularen mendean dago, eta, horrenbestez, eskualdatze hori artikuluan horretan xedatutakoaren arabera egin da –228.2 c) artikulua, hain zuzen–. Alde honen ustez, txostenak egiten duen interpretazioa, zeinaren arabera Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228. artikuluari jarraikiz ondasunak eskuratzen dituztenek egiten dituzten eskualdatze-

ek ere artikuluan horretan xedatutakora egokitu behar baitute, ez da zuzena. Aipatu ondasunak Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen 228. artikuluari jarraikiz eskuratzen dituztenek ondasun horiek eskualdatu beharko dituzte, ez 228. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, baizik eta haien ondasunak besterentzeko bete beharreko araudiaren arabera. Hala, pentsaezina da lurzoruaren udal ondareko ondasun bat 228. artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz (adibidez, enkantea) eskuratu duenak (esate baterako, enpresa pribatu batek), geroago ondasun hori eskualdatu nahi badu, 228. artikuluan xedatutakoaren arabera egin behar izatea. Andazelay SL sozietatearen kasuan, zuzenbide pribatuko enpresa-entitate bat izanik, zeinak merkataritza-enpresen araubideari jarraikiz jarduten baitu eta bere jardura araubide juridiko pribatura egokitzen baita, aplikatzekoa zaion araudiak ez du xedatzen bere ondasunak lizitazio publikoaren bidez besterendu behar dituenik.

Are gehiago, Andazelay SL-k ondasun hori 228. artikuluan arabera besterendu behar balu, hori horrela ez bada ere, Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateari eginiko eskualdatzeak xedapen hori errespetatuko luke, Udalak Andazelay SL-ri eginiko eskualdatzea oinarritzen den c) idatz-zatian sartzen baita; izan ere, Gestión y Promoción Egüés 21 SA Udalaren beste ente instrumental bat da, eta haren partaidetza handiena du, Andazelay SL-ren bitartez.

Azkenik, Andazelay SL-k Gestión y Promoción Egüés 21 SA-ri eginiko eskualdatzea onartuko ez balitz ere, 228. c) artikuluari jarraikiz, eskatzen den lizitazio publikoa bete egin da betiere; izan ere, eratu beharreko sozietate mistoko bazkide pribatua hautatzeko Udalak eginiko lehiaketan espresuki aurreikusi zen sozietate horrek sustatze- eta eraikitze-jarduerak egiten zituela lurzoruaren udal ondareko lurzatietan.

BIGARRENA.- Fiskalizazio txostenean –ikus 10. orrialdea– esaten da Sarrigurengo 3A-9 lurzatiaren esleitzea gehienbat titulartasun publikokoa den merkataritza-sozietate bati –Andazelay SL-k Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateari eginiko zuzeneko eskualdatzea– lehia askeri eta tratu-berdintasunaren printzipioari eragiten diela; izan ere, prozedura horrek, besteak beste, abantaila emanen lioke aipatu enpresaren kapitalean partaidetza duen enpresa pribatu bati bere lehiakideen aurrean.

Horri dagokionez, esan behar da Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateak aipatu eskualdatzean duen jarrera –eta lehiakideen aurrean izan dezakeen abantaila– ondorioztatzen dela

Andazelay SL sozietateak bere garaian sozietate misto bat eratzeko eginiko lehiaketatik. Lehiaketa horren oinarrietan aipatzen zen deialdiaren xedea dela Andazelay SL-k eta hirigintza-jardueretarako eta etxebizitza-sustapenerako kudeaketaren esleipen-hartzaileak sustatu behar zuten sozietate mistoaren bazkide bat hautatzea, eta espresuki ezartzen zen sozietatearen jarduerak zabal zitezkeela bestelako alorretara, hala nola nolabaiteko babes publikoa daukaten etxebizitzaren eraikuntza edo zaharberritzea sustatzea, edota lurzoruaren udal ondarearen administrazioa eta higiezinaren merkatuan esku hartzea. Horrenbestez, lehia askea eta tratu berdintasuna errespetatu ziren bere garaian –edozein enpresak izan zuen sozietate mistoa eratzeko aukera–, eta eskualdatzea txertatuta zegoen sozietate mistoa eratzeko lehiaketaren xedean. Hala, Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatearen eratze-eskriuraren arabera, haren xede soziala da “era guztietako higiezinak erosi eta eraikitzea, bai eta higiezinak sutatzea, urbanizatzea, kudeatzea eta merkaturatzea eta jarduera horiekin zerikusia duen eta horien osagarriak den beste edozein jarduera ere”.

HIRUGARRENA.- Fiskalizazio txostenaren azken ondorioetan (12. orrialdea) esaten da Udalak, abian jartzen dituen prozedurak hobetze aldera, udal kapitaleko sozietateen kontratu jardueran nahitaez ezarri behar diren publikotasunaren eta lehiaren printzipio orokorrak errespetatu beharko dituela.

Horri dagokionez, Udal honen ustez printzipio horiek errespetatzen dira jada.

LAUGARRENA.- Fiskalizazio txostenean (23. orrialdean) gogorarazten da toki entitateak edo hari lotutako entitateek kontratu publikoei buruzko foru legediko xedapen aplikagarriekin bat hautatuko dituztela bazkide pribatuak, zerbitzu publiko bat merkataritza-sozietate baten bidez kudeatzeko, baldin eta kapitala hein batean soilik bada toki entitatearena, eta, halaber, publikotasuna eta lehia askea bermatuko direla, kontuan hartuta sozietate misto horren xede soziala.

Horri dagokionez, esan behar da Andazelay SL-k sozietate misto baterako bazkide bat hautatu zuela, hirigintza-jarduerak eta etxebizitza-sustapena abian jartzeko, publikotasuna eta lehia askea bermatzen zituen prozedura baten bidez.

Fiskalizazio txostenaren 23. orrialdean esaten da, 3A-9 lurzatiari buruz, beharrezkoa dela lehiaketa publiko berri bat egitea publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak errespetatzen jarraitzeko. Gu ez gaude ados horrekin; izan ere, uste dugu printzipio horiek bermatuta geratu zirela bere

garaian. Halaber, uste dugu lurzati horren eskualdatzea sozietate mistoa sortze aldera sustatutako lehiaketan txerta daitekeela. Bestalde, lehiaketa berri bat egiteak gatazka sortuko luke jada eratutako sozietate mistoaren xede eta helburuekin. Izan ere, aipatu lehiaketaren deialdiko lehenengo klausulan ondokoa ezarri zen:

“Sozietate hori izanen da etorkizunean, lehiaketa honen xede diren jardueretan, Andazelay SL udal sozietatearen jabetzakoak diren lurzoruak eta hirigintzako aprobetxamenduak eskuratuko ditue-na, ekarpen-lurzatiekin batera.

Hori dela eta, ezinbesteko baldintza izanen da entitate lizitatzailerek aurkez ditzaketen eskaintzetan kontuan hartzea sozietate berriak lurzati horiek eskuratuko dituela.”

Lehiaketaren klausuletan espresuki aurreikus-tenez eratu beharreko sozietatearen jarduerak zabaldu ahalko zirela “nolabaiteko babes publikoa daukaten etxebizitzaren eta haien gehigarri edo osagarri diren eraikinen eraikuntza edo zaharberritzea sustatzea”, jarduera-zabaltze horrek berarekin dakar eratutako sozietateak Andazelay SL-ren lurzatiak eskuratzea aipatu sustapenak gauzatu ahal izateko, sozietate mistoa desegiten ez den bitartean.

BOSGARRENA.- Fiskalizazio txostenaren 10. eta 23. orrialdeetan esaten denez, sozietate mistoak eginiko etxebizitzak eraikitze lanen esleipena egiteko ez zen jarraitu kontratuaren zenbatekoaren arabera jarraitu beharreko lizitazio irekiaren edota publikotasun eta lehiadun lizitazio murriztuaren prozedura.

Horri dagokionez, esan behar da Gestión y Promoción Egüés 21 SA merkataritzako sozietate anonimoaren eratze-eskriuraren arabera –bertan jasotzen dira sozietatearen estatutuak–, haren xede soziala dela “era guztietako higiezinak erosi eta eraikitzea, bai eta higiezinak sutatzea, urbanizatzea, kudeatzea eta merkaturatzea eta jarduera horiekin zerikusia duen eta horien osagarriak den beste edozein jarduera ere”. Hala, Andazelay SL-k sozietate mistoaren partaidetza duenez eta interes publikokotzat jotzen ez diren industri edo merkataritza jarduerak bakarrik egiten dituenenez, 6/2006 Foru Legearen 2.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatu sozietate mistoa salbuetsita egonen litzateke 6/2006 Foru Legeko xedapenen aplikaziotik.

Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatea ez da Administrazio Publikoa eta ez du ahalmen esleipen-mailerik.

Sozietateak ez du egiten interes publikokotzat jotzen den jarduerarik eta bere jarduera merkatu pribatuarekiko lehian betetzen du, hau da, bere arrisku eta menturara, eta ez dago, esate baterako, sozietate horrek izan ditzakeen galerak konpentsatzeko sistemarik.

Horrenbestez, 6/2006 Foru Legearen xedapenetatik salbuetsita egonen litzateke, baina horrek ez du esan nahi, gure ustez, ez dituenik errespetatu behar, behinik behin, Europar Batasuneko araudiak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legean –Estatuaren oinarritzko legea da– ezarritako publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak.

Zehazki, ezartzen da ahalmen esleipen-emailerik ez duten sozietate publikoen kontratazioek –hori da gure kasua– errespetatu behar dituztela publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak, baina publikotasun eta lehia aske horien norainokoari dagokionez nolabaiteko lausotasuna dago. Horrenbestez, Udalak uste du Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietateak zenbait eskaintza eskatu izanarekin, Sarrigurengo 3A-9 lurzatian lanak egiteko kontratua esleitzerakoan, behar bezala errespetatu direla publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak; izan ere, esleipena egokitu ahal zitzaion Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatea partaide duen sozietate pribatuari edota eskaintza eskatu zitzaizen gainerako sozietate pribatuetako edozeini.

Hori guztia dela eta,

Eskatzen da aurkeztutzat jotzea aurreko alegazioak eta kontuan hartzea behin betiko fiskalizazio txostena egiterakoan.

Eguesibar, 2009ko otsailaren 4an.

Eguesibarko Udaleko alkatea: José A. Andía García de Olalla

EGUESIBARKO UDALEKO ALKATEAK 2006KO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGIN DIZKION ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

2009ko otsailaren 4an Eguesibarko Udaleko alkateak Udal horretako 2006ko ekitaldiko kontuei buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko fiskalizazio txostenari aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Comptos Ganberak honakoa zehaztu nahi du:

Lehenengoa.- Fiskalizazioaren norainokoari dagokionez, esan behar da fiskalizazioaren xede den ekitaldia 2006koa bada ere, aplikatzekoak diren auditoretzari buruzko arauak xedatzen dutela auditoreak, geroago izandako gertakariren bat

garrantzitsutzat jotzen badu, kasu honetan gertatzen den moduan, bere txostenean jasoko duela, txostenaren hartzaileek informazio osoa izan dezaten entitatearen jarduera ekonomiko-finantzarioan eragina duten gertakarien inguruan.

Bigarrena.- Bigarren, hirugarren eta laugarren alegazioei dagokienez, ondokoa zehaztu nahi dugu:

1.- 3A-9 lurzatia, Udalak doan laga ziona Andazelay SL udal hirigintza-sozietateari, lurzoruaren udal ondarekoa da, eta, hortaz, lurzati horren eskualdatzea Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 2002 Legearen 228. artikuluan xedatutakoari jarraikiz egin behar da. Xedapen horren arabera, eskualdatzeko prozedura arruntak dira lehiaketa edo enkante bidezko besterentzea, baina ez sozietate pribatu baten % 49ko partaidetza duen udal sozietate misto bati eginiko zuzeneko besterentzea.

Horrekin lotuta, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 2002 Legearen 228. artikuluan lurzoruaren udal ondarea osatzen duten ondasunak besterentzeko prozedurak aplikatzekoak zaizkie bai toki entitateari baina haren kudeaketarako ente instrumentalei –hori da udal hirigintza-sozietatearen kasua–; izan ere, hala ez balitz, xedapen horren edukiak ez luke eraginik izanen, udalak erabakitako hirigintzaren alorreko kudeaketa-ereduaren arabera. Udal hirigintza-sozietatea da, finean, Udalak alor horretarako duen ente kudeatzaile bat, eta ente horrek lurzoruaren udal ondareko ondasunak kudeatzen baditu, Udalak bezalaxe bete beharko ditu ondare hori besterentzeko ezarritako legezko xedapenak.

2.- Andazelay SL udal hirigintza-sozietateak sorturiko Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietate mistoa ezin daiteke hartu, Udalak dioen moduan, haren ente instrumentaltzat; izan ere, kontratazioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera –Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 8. artikulua– eta Europar Batasunak duela gutxi emandako epaiei jarraikiz, entitate bat beste baten ente instrumentaltzat hartu ahal izateko, zenbait baldintza bete behar dira: erabakitzeko autonomiarik ez izatea, entitateak bere zerbitzu edo unitateen gainean ezartzen duen kontrol bera izatea, jardueraren zatirik handiena ente enkarguemailearentzat egitea eta partaidetza pribaturik ez izatea. Baldintza horiek ez dira betetzen kasu honetan, enpresa pribatu batek baitu sozietate mistoaren kapitalaren % 49.

3.- Lurzatiaren lizitazio publikoa betiere egin zela enpresa mistoaren bazkide pribatua hautatzeko prozeduraren bidez dioen alegazioari dagokio-

nez, esan behar dugu hautaketa-prozedura hori soilik prentsaren bidez iragarri zela, eta ez Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez, hala egin bazen ere. Bestalde, prozedura negoziatu gisa izapidetu zen, bertan hiru eskaintzek parte hartu zuten, eta hautaketaren baldintza-orriaren arabera haren xedea zen etxebizitza babestuak sustatzea, eta ez horiek eraikitzea. Halaber, baldintza-orriaren xedek aipatzen zuen etxebizitzaren sustapena 3B-4 lurzatian eginen zela, eta ez 3A-9 lurzatian. Horrenbestez, uste dugu Udalaren alegazioa ezin dela aintzak hartu puntu horri dagokionez.

Hirugarrena.- Bosgarren alegazioan esaten da Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietate mistoa merkataritza-sozietate anonimo bat dela eta haren jarduera ez dela interes publikokotzat jotzen eta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aplikaziotik salbuetsita dagoela. Horri dagokionez, Comptos Ganberak hau adierazi nahi du:

1.- Aipatu sozietate mistoa sozietate publikoa da gehienbat, Udalak kontrolatzen du eta Udalak berak eratua da, interes publikoko beharrianak asetze aldera, nola diren herriko hirigintza-garapenari dagozkionak eta babes publikoko araubide ezberdinetako etxebizitzak sustatu, kudeatu eta eraikitzea jatorriz lurzorua udal ondarekoak ziren udal lursailetan.

2.- Hori kontuan hartuta, gure iritziz, sozietate mistoa, gehienbat publikoa izateagatik eta haren eraketan eta funtzionamenduan interes publikoko helburuek lehentasuna izateagatik, Udalaren esku-menekoak diren hirigintza-jarduerak egitean sozietate hori hartu behar da Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 2.1 e) artikuluan jasotako entitatetzat, eta bertan ezarritako aginduak aplikatu behar zaizkio.

3.- Horrekin lotuta, Comptos Ganberaren ustez, Udalen jarduera peto-petoa izan ohi den hirigintza kudeatzen denean nola eta udal sozietateen, titulartasun publikokoen nahiz mistoen bitartez, arriskua dagoela udalaren kudeaketan funtsezkoa den alor honetan (baliabide ekonomiko muntadunak erabiltzen baitira) gardentasuna eta kontrola ez hain zorrotzak izateko. Horrenbestez, desiragarria da gardentasun handiagoa izateko eta Udalak kontrol estuagoa egiteko aukera bermatzen duten bitarteko guztiak indartzea; besteak beste, hirigintza- eta kontratu-legedian jasotako prozedurak, indardun direnak, bai eta jarduketa horietatik eratorritako fluxu ekonomikoen kontrol finantzarioari dagozkionak ere.

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Burlatako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (22. or.).

- I. Sarrera (23. or.).
- II. Helburua (24. or.).
- III. Norainokoa (24. or.).
- IV. Iritzia (24. or.).
 - IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (25. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (25. or.).
 - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera (25. or.).
 - IV.4. 2006ko txosteneko gomendioen jarraipena (25. or.).
- V. Ondoren gertatutakoak (25. or.).
- VI. 2007ko kontu orokor bateratuaren laburpena (27. or.).
- VII. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (29. or.).
 - VII.1. Alderdi orokorrak (29. or.).
 - VII.2. Langileria (29. or.).
 - VII.3. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (29. or.).
 - VII.4. Inbertsioak (30. or.).
 - VII.5. Tributu bidezko dirusarrerak; tasak; prezio publikoak (30. or.).
 - VII.6. Inbentarioa-lbilgetua (30. or.).
 - VII.7. Gorabeherak (31. or.).
 - VII.8. Erakunde autonomoak (31. or.).
 - VII.9. Hirigintza (31. or.).

VII.10. Burlatako udal hirigintza sozietatea, S.L. (31. or.).

Eranskina: 2007ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

Burlatako Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (32. or.).

Burlatako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontuen behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkeztu zaizkion alegazioei emandako erantzuna (33. or.).

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

Nafarroako Comptos Ganberak Burlatako Udalaren fiskalizazioa egin du, 2007ko ekitaldiari buruzkoa, eta bertan aztertzen du kontu orokorra, legeen betetzea, finantza egoera eta aurreko txostenetan eskainitako gomendioen betetze-maila.

Txosteneko datuen arabera, ekitaldi horretan Burlatako Udalak 16,5 milioi gastatu eta 15,8 milioiko dirusarrerak izan zituen. Udal langileen ordainsariak gastu-kontusail garrantzitsuena izan ziren (zortzi milioi euro). Ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastuak 3,4 milioikoak izan ziren, eta inbertsioetarako erabili ziren beste hiru milioi. Diru-sarrerei dagokienez, transferentzia arruntek 6,8 milioi egin zituzten, zuzeneko zergek 3,2 milioi, eta tasek 2,5 milioi.

Kontu orokorra aztertu ondoren, Comptos Ganberak baieztatzen du aurrekontu-likidazioaren irudi leiala adierazten duela, nahiz eta honakoei buruzko hiru salbuespen dauden: ondasunen inbentarioa eta Burlatako Udal Hirigintza Sozietateko kontabilitate-akatsak.

Legeei dagokienez, txostenak adierazten du Burlatako Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har indarreko araudia betez egiten dela, baina salbuespen bat dagoela: lurzoruaren udal ondarearen alorreko lege-zehaztapenak ez betetzea.

Txostenak adierazten duenez, ekitaldia itxi zen 60.000 euroko superabitarekin, 5,3 milioiko zorra-ekin eta 1,3 milioiko diruzaintza-gerakin negatiboarekin. Zorpetze-ahalmen oso mugatuarekin batera, Burlatako Udalak likidezia-problema eta zor

handia dauzka, bai eta zor horri aurre egiteko balibideak sortzeko daukan ahalmenari buruzko ziurgabetasun handia ere.

Txostenak, halaber, 2007ko ekitaldiaz geroko hirigintza-eragiketa batzuk aztertzen ditu. Zehazki, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatearen eraketaz jarduten du, zeinean parte hartzen baitu Burlatako Udal Hirigintza Sozietateak, % 49 kontrolatzen duen sozio pribatu batekin batera. Sozietate honi 4 udal-lursail saldu zitzaizkion etxebizitzia-sustapenerako, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ezarritako prozedurak bete gabe.

Bestalde, udalak eta bere sozietateek hirigintza-garapenarekin zerikusia daukaten zenbait zerbitzu profesional kontratatu dituzte, eta, era bere-

an, ez dituzte bete Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ezarritako hautaketa-prozedurak.

Txostenean sartuta daude, halaber, alkateak hirigintza-alorrean eginiko alegazioak eta Comptos Ganberak horiei emandako erantzuna.

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta bere erakunde autonomo hauen 2007ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du: Kirol Patronatua eta Kultur Patronatua.

Burlatako Udalak 18.337 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2007-12-31n
Udala	14.917.608,00	14.166.430,74	157
Kirol Patronatua	1.860.560,20	1.968.127,7	35
Kultura Patronatua	778.588,34	783.684,26	5
Guztira	16.508.197,79	15.869.683,95	197

Oharra: Guztizko zenbatekoa bateraturik dago, eta hortaz, ez dator bat agerturiko xehetasunen baturarekin.

Udalak ez du 2007ko ekitaldiko kontu bateratuan sartu Hilarión Eslava musika-eskolari dagokiona; izan ere, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 00024/2008 epaiak, 2008ko urtarrilaren 16koak, ezartzen du ezen Hilarión Eslava musika-eskolak ez daukala berezko izaera juridikorik eta, beraz, ez dela toki-erakunde autonomo gisa hartu behar. Bere izaera juridikoa zehazteke dago.

2005eko ekitaldian, udalak Burlatako Udal Hirigintza Sozietatea ("Sociedad Urbanística Municipal de Burlada SL") eratu zuen, kapitala osoki udalarena duena. Sozietate honek ehuneko 51ko partaidetza dauka Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatean, zeina 2008an eratu baita.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan hartzen du parte, eta halaber, Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean ere, ANIMSA.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta norainoko horren mugak eta, laugarrenean, Kontu Orokorriari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarrenean sartuta daude fiskalizatzen ari garen ekitaldiaz geroztiko gertakariak. Seigarren atalean jaso ditugu Burlatako Udalaren finantzen egoera-orri nagusiak, eta zazpigarrenean, berriz, barne-antolaketa eta kontrola hobetzeko egokitzen jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-, finantza- eta legezketasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2007ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2007an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2007ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Burlatako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen, bere erakunde autonomoen eta Burlatako Udal Hirigintza Sozietatearen egoera-balantze bateratua.

- Oroitidazkia.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bat.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Guk eginiko berrikuspenean ez daude sartuta udalak 2007an izenpeturiko hirigintza-hitzarmenak, zeren eta Comptos Ganberak 2009ko fiskalizazio-programan sartu baitu Iruñerriko udalek 2005etik 2008ra bitartean sinaturiko hirigintza-hitzarmenei buruzko berariazko fiskalizazio-lan bat, eta horretara jo behar da.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Burlatako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzia honetara iritsi gara:

IV.1. UDALAREN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

- Burlatako Udalaren egoera-balantzea Burlatako Udal Hirigintza Sozietatekoarekin bateratzean izandako akats bat dela-eta, bai ibilgetu materialari bai ondareari 664.557 euroko gainbalioespena egin zaie.

- Burlatako Udal Hirigintza Sozietateak ez du erregistratu 2007ko ekitaldian sorturiko gastu bat, 2 milioi euro inguruko zenbatekoa duena, Burlatako UA-1 unitateko garajeen eraikuntzari dagokiona; horrela, bada, 2007ko abenduaren 31ko emaitza gainbalioetsia dago kopuru horretan.

Aurreko lerrokadetan aipaturiko salbuespenen ondorioengatik eta txosten honen VII. atalean azal dutako gai zalantzazkoak zertan gauzatzen diren jakinez gero udalari sor lekizkiokeen ondorioengatik izan ezik, udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du, alderdirik behinenetan, bere gastu- eta dirusarra-aurrekontuen likidazioaren, 2007ko abenduaren 31ko bere ondare-egoeraren eta bere eragiketen emaitzen irudia. Halaber, behar bezala interpretatua eta ulertua izateko beharrezkoa eta nahikoa den informazioa biltzen du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, entitatearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun printzipioari jarraituz garatu da. Hala ere, ez dira bete lurzoruaren udal ondareari buruzko lege-zehaztapenak.

IV.3. 2007KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

Hasierako aurrekontu bateratua 17,1 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 22,4 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 74koa da, eta dirusarrerena, ehuneko 71koa.

2007ko ekitaldian gora egin du gastuen betetzearen ehunekoak, bai eta dirusarrerena ere. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 101ekoa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 42koa. Bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreen ehuneko 25 egiten dute. Baliabide bateratuen % 57 transferentzietatik datoz.

Garajeen salmentatik aurreikusitako dirusarreak, 2,3 milioi eurokoak, ez dira bete, udal-sozietate

tea izan baita obra egin duena, ondoren salmentaz arduratu dena eta dirusarrerak bere kontuetan erregistratu dituen.

Gastu-kapituluen artean, garrantzitsuenak langileria-gastuak dira (aitorturiko guztizkoaren gaineko ehuneko 48), ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak (ehuneko 21) eta inbertsio errealak (guztizkoaren gaineko ehuneko 18).

Ekitaldiaren amaieran, aurrekontuaren emaitza doituari 60.735,29 euroko superabita ageri da (ikus VI. epigrafea).

2007ko abenduaren 31n, zorra 5,3 milioi eurokoa zen. 2007ko ekitaldian zehar diruzaintzako kreditu bat hitzartu da, 1,5 milioi eurokoa; diru horretatik 1,1 milioi euro zeuden xedatuta 2007ko abenduaren 31n. 2008ko ekitaldian zehar, kredituaren muga 2 milioi eurotara igo da.

Zorpetze-maila dirusarrerara arrunten gaineko ehuneko 8koa da, eta muga, ehuneko 9koa. Nahiz eta egoerak zertxobait hobera egin duen aurreko urtekoarekin alderatuta, zorpetze-ahalmena oraindik ere oso mugatuta dauka.

Diruzaintzako gerakin bateratua negatiboa da, 1,2 milioi eurokoa, eta gastu orokorretarako gerakina ere negatiboa da, 2,2 milioi eurokoa. Egoera hori zuzendu beharko litzateke Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikuluan ezarritako neurrien bidez, oroitidazkiko kontu-hartzaileak ohartarazten duenez.

Finantzen ikuspegitik, udalak gaur egun likidez- arazoak eta zor-bolumen handia agertzen ditu, eta oso zalantzazkoa da udalak zor horri aurre egiteko baliabideak sortzeko daukan gaitasuna.

IV.4. 2006KO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2006ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-gomendio nagusiak oraindik gauzatzeko daudela, nahiz eta 2008an zehar erregistro bat taxutzeari ekin zaion, udalaren lurzoru-ondarearen gaineko kontrol handiagoa izate aldera.

V. ONDOREN GERTATUTAKOAK

Gure lanaren denbora-esparrua 2007ko ekitaldia da. Hala ere, azterlana egiten ari ginen bitartean, eginiko zenbait eragiketaren berri izan dugu, eta bidezkoa iruditzen zaigu horiek aipatzea. Honakoak dira:

- 2008ko ekainaren 17an eratu zen Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea. Sozietate horren

kapital soziala 3.100 eurokoa da; horren ehuneko 51 Burlatako Udal Hirigintza Sozietateak izenpetua da, eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batek izenpetua.

Sozietate-xedea, besteak beste, edozein izae-ratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Ripagainako udalez gaindiko plan sektoria-aren esparruan.

- Burlatako Udal Hirigintza Sozietatearen administrazio-kontseiluaren 2008ko maiatzaren 16ko aktan agertzen da zera erabaki zela, Burlatako Udaletik heldutako Ripagainako esparruko lau lursailen doako lagapena onartzea eta, jarrai-jarri- an, horiek Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozieta-teari saltzea, 7,4 milioi euroko zenbatekoaren truke.

Bazkide pribatu baten hautaketaren bidez sozi- etatearen eraketari ekiteko, deialdi bat egin zen, eta horrek berarekin zekarren Lurzoruaren Udal Ondareko zenbait lursailen eskualdaketa, baldin- tza-orri baten bidez arautua eta prentsa bidezko publizitatez egina.

Deialdi horren bitartez, prentsa bidezko publizi- tatea eman eta konkurrentzia eskatu zen. Alabai- na, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean horrelako kontratu-erako ezarritako pro- zedura errespetatze aldera, beharrezkoa zen, horrez gain, Nafarroako Kontratazioaren Atarian lizitazio-iragarki bat argitaratzea, kontratua arau- tzen zuten baldintza guztiak adierazten zituena eta legez ezarritako konkurrentzia-epeak errespetatuz, betiere.

Halaber, kontratuaren balio-zenbatespena ere adierazi behar izan zen, eta, esleipen-irizpideei dagokienez, horietako bakoitzaren haztapan erlati- boa ezarri behar izan zen. Irizpide horiek, gainera,

objektiboak, zenbatetsiak eta alde zuzenak eza- gutuak behar zuten izan.

- Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea hasi da babes ofizialeko 48 etxebizitzaren eta pre- zio tasatuko 158 etxebizitzaren eraikuntza susta- tzen, Ripagainako udalez gaindiko plan sektoria- len esparruan. Horretarako, proiektu teknikoak prestatzeko zenbait kontratu esleitu ditu, baina ez dago frogatuta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritako prozedura bete duenik.

Nafarroako toki entitateekin lotura edo menpe- kotasuna duten merkataritza-sozietateen kontratu- en prestaketak eta esleipenak, baita laguntza tek- nikokoenak ere, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea bete behar dute.

Finean, Comptos Ganberaren ustez, hirigintza- ren kudeaketa ahalik eta gardentasun eta kontrol maila handienarekin egin behar da. Horrekin lotu- ta, Administrazioak berezkoa duen jarduera hori egite aldera udalak zenbait hirigintza-sozietate sortu izanak oztopatu egiten du printzipio horiek betetzea, eta udalarentzat zailagoa egiten aipatu jarduera antolatzea eta kudeatzea.

Beraz, hau da gure gomendioa: udalak bere burua antolatzeko ahalmena duenez bai eta auto- nomia ere udal-hirigintza kudeatzeko egokien iriz- ten dion modua aukeratzeko, azter dezala gaur egun jarduera hori kudeatzeko modua, hirigintza- sozietateen bidezkoa, bai eta kudeaketa-eredu hori bat datorren aipatu jarduerak bilatu beharreko interes publikoaren helburuarekin.

Halaber eta betiere gomendatzen dugu hertsia- ki errespetatu daitezela hirigintzaren eta kontratazio publikoaren alorreko legediak ezarritako irizpideak eta prozedurak, zeinek bermatzen duten zenbait printzipio betetzea, hala nola tratatu-berdintasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna eta publiko- tasuna, bai eta jarduera hori guztia udalak behar bezala kontrolatzea ere.

2007ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	Aitorturiko guztiaren gaineko %
Langile-gastuak	9.108.822,93	(56.803,20)	9.052.019,73	7.974.075,11	88,09	7.855.216,41	118.858,70	48,30
Ondasun aruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3.756.320,45	133.095,54	3.889.415,99	3.473.100,01	89,30	2.718.870,02	754.229,99	21,04
Finantza-gastuak	329.850,93	0,00	329.850,93	260.602,75	79,01	260.602,75	0,00	1,58
Transferentziak	991.685,57	56.839,72	1.048.525,29	994.804,13	94,88	695.488,27	299.315,86	6,03
Inbertsio errealak	2.008.425,24	5.157.072,21	7.165.497,45	2.939.883,93	41,03	2.376.399,09	563.484,84	17,81
Kapital-transferentziak	94.559,00	(94.000,00)	559,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Aktibo finantzarioak	35.000,00	0,00	35.000,00	11.800,00	33,71	11.800,00	0,00	0,07
Pasibo finantzarioak	824.024,83	31.815,43	855.840,26	853.931,86	99,78	851.697,26	2.234,60	5,17
Gastuak, guztira	17.148.688,95	5.228.019,70	22.376.708,65	16.508.197,79	73,77	14.770.073,80	1.738.123,99	100,00

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Betakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratzeko dagoena	Aitorturiko guztiaren gaineko %
Zuzeneko zergak	3.229.325,00	0,00	3.229.325,00	3.253.557,92	100,75	2.958.191,77	295.366,15	20,50
Zeharkako zergak	1.705.366,85	0,00	1.705.366,85	722.513,36	42,37	685.051,06	37.462,30	4,55
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	2.320.839,55	52.240,00	2.373.079,55	2.551.885,13	107,53	2.393.401,11	158.484,02	16,08
Ohiko transferentziak	6.802.482,75	34.815,43	6.837.298,18	6.854.655,67	100,25	6.660.169,39	194.486,28	43,19
Ondarezko diru-sarrerak	249.224,74	0,00	249.224,74	302.895,70	121,54	265.526,23	37.369,47	1,91
Inbertsioak besterentzea	386.483,27	2.359.236,96	2.745.720,23	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Kapital-transferentziak	2.419.966,79	1.003.151,54	3.423.118,33	2.173.211,89	63,49	1.676.445,84	496.766,05	13,69
Aktibo finantzarioak	35.000,00	1.778.575,77	1.813.575,77	10.964,28	0,60	10.964,28	0,00	0,07
Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Diru-sarrerak, guztira	17.148.688,95	5.228.019,70	22.376.708,65	15.869.683,95	70,92	14.649.749,68	1.219.934,27	100,00

Aurrekontu-emaizta bateratua

Kontzeptua	2007
+ Aitorturiko eskubide garbiak	15.869.683,95
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	(16.508.197,79)
Aurrekontu-emaizta	(638.513,84)
DOITZEAK	
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa G.F.A.	(906.296,87)
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa G.F.A.	1.136.685,98
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa R.A.	0,00
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	468.860,02
Aurrekontu emaitza doitua	60.735,27

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua

Kontzeptua	2007
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.376.443,90
(+) Dirusarreraren aurrekontua: jadaneko ekitaldia	1.219.934,27
(+) Dirusarreraren aurrekontua: ibitako ekitaldiak	677.737,82
(+) Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	63.534,18
(-) Dirubilketa zailleko eskubideak	(584.762,37)
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	(3.652.418,21)
(+) Gastuen aurrekontua: jadaneko ekitaldia	(1.738.523,00)
(+) Gastuen aurrekontua: ibitako ekitaldiak	(61.237,45)
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	(1.852.657,76)
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.062.528,75
(+) Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	60.495,92
= Diruzaintzako gerakina, orotara	(1.152.550,63)
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	270.504,50
Gerakina, balibide atxikiak sortua	743.994,12
Gerakina, gastu orokorretarako	(2.167.049,25)

Egoera-balantze bateratua

AKTIBOA

Deskribapena	2007	
IBILGETUA		48.973.788,36
Ibilgetu materiala	33.232.505,47	
Ibilgetu ez-materiala	1.19.545,99	
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	15.615.485,91	
Herri ondasunak	845,93	
Ibilgetu finantzarioa	5.405,06	
ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK		0,00
Deuseztatu beharreko gastuak	0,00	
IBILKORRA		4.844.896,91
Izakinak	843.638,60	
Zordunak	1.993.923,12	
Kontu finantzarioak	2.007.335,19	
AKTIBOA, GUZTIRA		53.818.685,27

PASIBOA

Deskribapena	2007	
FUNTS BEREKIAK		44.777.092,63
Ondarea eta erreserbak	30.855.601,38	
Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	3.212.470,24	
Kapital-dirulaguntzak	10.709.021,01	
ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK		0,00
Homidurak	0,00	
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK		5.257.770,41
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	5.257.770,41	
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK		3.783.822,23
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	3.783.822,23	
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0,00	
PASIBOA, GUZTIRA		53.818.685,27

VII. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

VII.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Finantza-bideragarritasuneko plan bat egitea datozen ekitaldietarako, kontuan izanik bai Ripagainako unitatearen hirigintza-garapenaren ondorioz aurreikustekoak diren dirusarreraren lorpena bai gastu arruntaren kontrola, udalerrian aplikatu daitekeen presio fiskala eta zorpetze-muga.*

- *Azken urteotan, udalak gastu orokorretarako gerakin bateratu negatiboa izan du behin eta berriro: 2007ko abenduaren 31n, 2,2 milioi euroko defizita zeukan. Egoera hori zuzendu beharko litzateke Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikuluan ezarritako neurrien bidez.*

- *Aurrekontua onetsi behar da bera aplikatu behar deneko ekitaldiaren hasiera baino lehenago.*

- *Aurrekontu errealistagoak prestatu behar dira zeharkako zergen (EIOZ) ondoriozko dirusarrerei eta hirigintza-aprobetxamenduei dagokienez; izan ere, atal horietako betetze-ehunekoak oso apalak dira.*

VII.2. LANGILERIA

Udaleko langileria-gastuak 7.974.075,11 eurokoak dira. Gastu guztien ehuneko 48 egiten dute, eta 2007an sorturiko gastu arrunten ehuneko 59.

Lanpostuak betetzeko ondoko deialdiak berrikusi ditugu:

- Arkitekto-lanpostu bat betetzeko deialdia.
- Herritarrentzako Arreta Bulegoaren arduradun-lanpostu bat betetzeko deialdia.
- Udaltzaingoko lau udaltzain-lanpostu betetzeko deialdia.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen dela.

Hona gomendioak:

- *Aldi baterako langileen kopuru handia kontuan hartuta, aztertu beharko litzateke eman behar diren zerbitzuen arabera zer langileria-beharrizan dauden, eta, kasua bada, hutsuneak betetzearren egin beharreko deialdiak egin beharko lirateke, horrela saiheste aldera denbora-epetegi eta abarri dagokien lege-mugak urratzearen ondoriozko epaiketa-kontu balizkoak.*

VII.3. GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

2007an, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek gastu guztien ehuneko 21 egiten dute. Honakoa da haien xehakapena:

Kapitulu ekonomikoak	2007an aitorturiko betebeharrak
Erentamenduak	39.392,81
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	685.972,91
Materiala, homidurak eta bestelakoak	2.741.074,80
Zerbitzuaren ondoriozko kalteordainak	6.659,49
Guztira	3.743.100,01

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Renting bidez Udaltzaingorako ibilgailuaz hornitzeko kontratazioa (45.828 euro).
- Gazteentzako Informazio Bulegorako laguntza teknikoaren kontratazioa (23.260 euro).

Guk eginiko berrikuspenaren arabera, esan daiteke indarreko araudia aski ongi errespetatu dela, nahiz eta laguntza teknikoaren kontratazioa-ko espedientean ez den agertzen ez txosten juridikorik ez eta kontu-hartzailearenik ere.

Bestalde, egiaztatu dugu ezen kultura patronatuak faktura bat kontabilizatu duela, 45.820 euroko kostua izan duen eta kontratu baten bitartez antolatua izan den zezen-ikuskizun bati dagokiona,

nahiz eta ez den kontratazio publikoko inolako prozedurarik jarraitu.

Hona gomendioak:

- *Kontratazioari buruzko araudia aplikatzea, eta txosten juridikoa eta kontu-hartzailezako egitea, eta kontratuak esleitzeari dagokionez ezarrita dauden prozedurak betetzea.*

VII.4. INBERTSIOAK

2007. urtean eginiko inbertsioak 2.939.883,93 eurokoak izan dira. Gastu guztien ehuneko 18 egin dute. Betetzea ehuneko 41ekoa izan da.

Kontratazio-espediente hauek aztertu ditugu:

Espedientea		Esleipen-prozedura		Zenbatekoa
Udal-igerilekuetan erretegiak egiteko obra	Obrak	Negoziatua, Batasuneko gabekoa	Europar publizitaterik	337.836
0-3 urte bitarteko haur-hezkuntzako lehen zikloko ikastetxerako obraren proiektua eta zuzendaritza	Laguntzarako kontratua	Irekia		113.000
Etxeko ur hotz eta beroaren sareak eraldatzea igerileku estaliaren eraikinean	Obrak	Negoziatua, Batasuneko gabekoa	Europar publizitaterik	90.813
Hiri-altzarien homidura eta ekipamendua	Homidura	Negoziatua, Batasuneko gabekoa	Europar publizitaterik	81.780

Esleipen-espediente horiek azterturik, ez dugu administrazio-kontratuei buruzko araudiaren arau-hausterik detektatu.

VII.5. TRIBUTU BIDEZKO DIRUSARRERAK; TASAK; PREZIO PUBLIKOAK

- *Kirol Patronatuaren dirusarrerei dagokienez, dirusarreraren kudeaketatik eratorritako datuak egiaztatzeko modua ematen duten prozedurak taxutzea eta sistematikoki aplikatzea, eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin nahiz dirubilketakoekin berdinkatu eta kontrajartzea.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

- *Eraikuntza- eta obra-lizentzien gaineko kontrol- eta ikuskapen-prozedurak ezartzea, obra hori-*

ek ez daitezen egin udalaren berriazko eta beharrezko baimenik gabe.

VII.6. INBENTARIOA-IBILGETUA

- *Udal ondasunak —jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak— eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VII.7. GORABEHERAK.

Udaleko aholkulari juridikoengandik jasotako erantzunak berrikusiz, honako gorabehera hauek detektatu ditugu:

- 52/08 prozedura arruntaren bitartez, abian da 21 bizilagunek jarritako errekursoaren izapidetza. Errekursoaren zergatia dira Igeltserotzako Tailer Eskolak bere jardunaren hamaika urteetan zehar eragindako enbarazuak. Demanda 693.000 eurokoa da. Txosten hau egiteko orduan, zalantzak daude prozedura honetatik udalari eratorriko zaizkion ondorioei buruz.

- 96/07 prozedura arruntaren bitartez, abian da zenbait bizilagunek jarritako errekursoaren izapidetza. Ez daude ados S-8ren obra-lizentzia bat legezkoa izatearekin. Txosten hau egiteko orduan, zalantzak daude prozedura honetatik udalari eratorri ahalko litzaizkiokeen ondorioei buruz.

VII.8. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- *Erakunde autonomoei dagokienez, horien estatutuak osatu eta gaurkotu egin behar dira, haien benetako autonomia-maila agertzera emanez eta udalak haien jardueraren gain erabiltzen dituen kontrol- eta zaintza-mekanismoak erakutsiz.*

- *Kontuan hartu behar da aurrekontu-gastuen muga-izaera, zeina, 25.000 euro inguruko neurrian, ez baita errespetatu Udalaren Kultur Patronatuaren kasuan. Euro horiek 2008ko aurrekontuan erregistratuko dira.*

- *Burlata eta Atarrabiako "Hilarión Eslava" Udalaren Musika Eskolaren izaera juridikoa zehaztu behar da.*

VII.9. HIRIGINTZA

Udalak, 2006ko ekainaren 1eko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bitartez, udal plana onesteko izapideak hasi zituen. Erabaki hori 2006ko uztailaren 6ko 80. NAO-n eman zen argitara, eta Nafarroako Gobernuari bidali zitzaion, hark onetsi zezan. Txosten hau egiteko garaian, udal plan berria Nafarroako Gobernuak onetsi gabe dago. Aurreko txostenean aipatutako egoera bera.

Horrenbestez, 1991n onetsitako udal plana aplikatzen da oraindik ere.

Hirigintza arloko proiektu desberdinetan bete egiten da indarreko araudia, etxebizitza babestuak

eraikitzeari eta luraren ehuneko hamar udalaren lurzoru ondarrerako lagatzeari dagokienez.

Bestalde, eginiko ikuskapenaren arabera, hauxe gomendatzen dugu:

- *Halako antolamendu-egitura bat ezarri behar da non idatziz esleituko baitira langileen erantzukizun eta eskumenak, eta prozedurak ezarri behar dira, hirigintza-kudeaketakoak eta hirigintzarekin zerikusia daukaten jarduketan arduradunen arteko koordinazioerakoak, barne-kontrola sendotuz.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistro bat eta kontrol-sistema bat ezarri behar dira, gogoan izanik ondare horrek gainerako ondasunetatik bereizitako kudeaketa izanen duela eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako helburuei lotuta dagoela.*

2008ko ekitaldian zehar zenbait neurri hartu dira oker hori zuzentzeko.

VII.10. BURLATAKO UDAL HIRIGINTZA SOZIALATEA, S.L.

2005eko irailaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Burlatako Udalak sozietate publiko bat eratze-ko administrazio-espeditatea onetsi zuen; sozietate horren helburua da udalaren jardueran ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea zaharberritzea sustatzeko, etxebizitzak eta bestelako eraikinak sustatzeko, lurzoria urbanizatzeke, hirigune degradatuak suspertzeke eta, ondorioz, orube eraikigarrien eta eginen diren eraikinen prezioak –salmentakoak nahiz alokairukoak– jaisteko.

Sozietate-kapitala (1,8 milioi eurokoa, 180 partaidetzatan banatua, bakoitza 10.000 euroko balio nominalekoa) eta jaulkipen-saria (zenbatekoa: 664.556,94 euro) osoki despoltsatu zituen Burlatako Udalak, horretarako lursail bat lagaz, zeina 2.464.557 euroan balioetsi baitzen, 2006ko ekainaren 8ko eskritura baten arabera, zeinaren bitartez zuzendu baitzen aurretiko eratze-eskritura bat. Jaulkipen-sari hori 2007ko abenduaren 31n erregistratua izan da sozietatearen kontabilitatean.

Sozietateak bi kreditu-lerro dauzka, guztira 1,8 milioi euroko zenbatekoa egiten dutenak. Zenbateko horretatik, 2007ko abenduaren 31n xedatuta agertzen dira 1,5 milioi euro. Sozietate horrek 2007ko ekitaldian izan duen emaitza 1,9 milioi euroko irabazia da.

Hala ere, sozietateak zera soilik erregistratu du, UA-1 unitateko garajeen salmentatik lorturiko dirusarrerak, eta ez du erregistratu, ordea, garaje horien eraikuntza-kostua, oraindik fakturatzeko dagoena eta gutxi gorabehera 2 milioi euroko zenbatekoa duena.

Hona gure gomendioak:

- *Sortzapenaren printzipioa eta dirusarreraren eta gastuen korrelazioarena errespetatzea eta aipaturiko garajeen eraikuntza-kostuak erregistratzea.*

Bestalde, ez dago frogatuta arkitekto baten zerbitzuak kontratatzeke inolako prozesurik, legez ezarritakoaren arabera, egin denik, eta kontzeptu horretan 19.400 euroko gastua kontabilizatu da.

Hona gure gomendioak:

- *Behar bezalako kontratazio-prozedura jarraitzea, kontratuei buruzko foru legedian ezarritakoa betez.*

- *Udalak diseinatu eta aplikatzea udalaren kapitaleko sozietateei ezarri beharreko finantza-eta eraginkortasun-kontrolerako prozedurak.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko otsailaren 13an.

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

BURLATAKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

José Muñoz Arias jauna, Burlatako Udalaren eta Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen ("Sociedad Urbanística Municipal de Burlada, S.L.") ordezkari gisa, Comptos Ganberaren aurrean agertu eta, zuzenbidearen arabera bidezkoena den moduan, honako hau adierazten dut:

2007ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenaren zirriborroa jaso dut eta honako alegazio hauek aurkeztu ditut:

ALEGAZIOAK

Lehen.- "Ondoren gertatutakoak" izeneko V. Atalean, 10. orrialdean, 6. eta 7. lerroketan, esaten da ezen, bazkide pribatu baten hautaketaren bidez sozietatearen eraketari ekiteko, beharrezkoa zela, horrez gain, "Nafarroako Kontratazioaren Atarian lizitazio-iragarki bat argitaratzea, kontratua arautzen zuten baldintza guztiak adierazten zituen eta legez ezarritako konkurrentzia-epeak errespetatu, betiere." Halaber esaten da ezen, "halaber, kontratuaren balio-zenbatespena ere adierazi behar izan" zela, eta, "esleipen-irizpideei dagokienez, horietako bakoitzaren haztapan erlatiboa ezarri behar izan zen. Irizpide horiek, gainera, objektiboak, zenbatetsiak eta alde aurretik ezagutuak behar zuten izan."

Hori horrela, honako hau esan beharra dago:

- Atariko iragarkia ez zen posible izan, sozietateak ez zuelako modurik izan bertan alta hartzeko;

- baldintza-orriak kontratua arautzen zuten baldintza guztiak jasotzen zituen;

- zorrozki errespetatu ziren legez ezarritako konkurrentzia-epeak (epe luzeagoak izan ziren);

- esleipen-irizpideak baldintza-orrian finkatu ziren, bai eta haietako bakoitzaren haztapan ere.

Bigarrena.- "Ondoren gertatutakoak" izeneko V. Atalean, 10. orrialdean, 8. eta 9. lerroketan, esaten da ezen Ripaberri sozietatea babes ofizialeko 48 etxebizitzaren eraikuntza sustatzen hasi dela, eta "proiektu teknikoak prestatzeko zenbait kontratu esleitu" dituela, "baina ez dago frogatuta Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean ezarritako prozedura bete duenik," eta amaitzen du esanez ezen "Nafarroako toki entitateekin lotura edo menpekotasuna duten merkataritza-sozietateek Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea bete behar" dutela.

Hori horrela, honako hau alegatu beharra dago:

- lotura edo menpekotasuna duten merkataritza-sozietateek Kontratu Publikoari buruzko foru Legea bete behar dutela (3.2.1.e artikulua) baldin eta "beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzen" badituzte, "industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak";

- Ripaberri sozietateak, aurreko lerroketan adierazitakoa gorabehera, kontratazio-irizpideak zehaztu dituela eta esleipen-erabakiak hartu dituela betiere kontuan hartuz Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea; zehazki, II. liburua, bai eta aplikatzeakoak diren kontratazio-printzipioak ere.

Hirugarrena.- VII.10. atalean, 19. orrialdean, 6. lerroketan, honakoa esaten da: "ez dago frogatuta arkitekto baten zerbitzuak kontratatzeke inolako prozesurik, legez ezarritakoaren arabera, egin denik, eta kontzeptu horretan 19.400 euroko gastua kontabilizatu da."

Gogoeta hori horrela, froga-dokumentazioa erantsi dugu hemen, zerbitzu-ematearen iraupena urtebete baino gehiagokoa dela egiaztatzeko; horrenbestez, Kontratuei buruzko Foru Legeko 193. artikulua betetzen da.

Hori dela eta,

Burlatako Udala

ESKATZEN DUT honako idazki hau eta bertan jasotako gogoetak aurkeztutzat jotzea.

Burlatan, bi mila eta bederatziko otsailaren bian.

MIKEL OSCÁRIZ ZABACO JAUNAK, ZEINA ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA ETA BURLATAKO UDALEKO IDAZKARIA BAITA,

EGIAZTATZEN DUT: Udal honetako Gobernu Batzordeak bi mila eta lau urtarilaren hogeita batean egindako bilkura arruntean jarraian literalki jasotzen den erabakia hartu zuela:

1.- Francisco Manuel Zuasti Elizondo arkitektoaren zerbitzuak, kontsultoria eta aholkularitza teknikokoak, kontratatzea. Jaun horren zeregina mugatuko da Ripagaina Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren espedientean aholkularitza teknikoak ematera.

2.- Héctor Nagore Soravilla abokatuaren zerbitzuak, kontsultoria eta aholkularitza juridikokoak, kontratatzea. Jaun horren zeregina mugatuko da Ripagaina Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren espedientean aholkularitza teknikoak ematera.

3.- Alkatetzari baimena ematea erabaki hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Eta bidezkoa den guztietan hala ager dadin eta eragina izan dezan, honako agiri hau luzatzen dut, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin, eta udalaren zigiluarekin, Burlatan, bi mila eta bederatziko urtarilaren hogeita hiruan.

BURLATAKO UDALAREN 2007KO EKITALDIKO KONTUEN BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO-TXOSTENARI AURKEZTU ZAIZKION ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA.

2009ko otsailaren 4an Burlatako Udaleko alka-teak udal horretako 2007ko ekitaldiko kontuei buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkezturiko alegazioak aztertu ondoren, Comptos Ganberak honakoa zehaztu nahi du:

Lehen.- Lehenbiziko alegazioari dagokionez, Comptos Ganberak jotzen du ezen Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak sozietate mistoko bazkide pribatua hautatzeko prozedurak inplizituki zekarrenez lurzorua udal ondareko lursail batzuen eskualdaketa egitea (7,4 milioi euroan balioetsiak), beharrezkoa zela, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 228. artikuluan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean xedatua kontuan hartuz, lizitazio publikoko prozedura bat egitea horretarako, Nafarroako Kontratazioaren Atarian publikizitatea eginez edo, horren orde, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, hala-

ber, zehaztasun handiagoz ezarri beharko zirela esleipen-irizpideak eta beren haztapena, bai eta lizitazioaren beste alderdi oinarritzko batzuk ere.

Bigarrena.- Bigarren alegazioari dagokionez, hots, "Ripaberrri" sozietate mistoari Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea aplikatzeari buruzkoari, Comptos Ganbera honek jotzen du ezen aipaturiko sozietatea gehienbat publikoa dela. Udalaren Hirigintza Sozietateak eratu da, interes publikoko beharrianak asetze aldera, nola diren herriko hirigintza-garapenari dagozkionak eta babes publikoko araubide ezberdinetako etxebizitzak sustatu, kudeatu eta eraikitzea jatorriz lurzorua udal ondarekoak ziren udal lursailetan.

Hori dela-eta, gure iritziz, sozietate mistoa, gehienbat publikoa izateagatik eta haren eraketan eta funtzionamenduan interes publikoko helburuek lehentasuna izateagatik, udalaren eskumenekoak diren hirigintza-jarduerak egitean sozietate hori hartu behar da Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 2.1 e) artikuluan jasotako entitatetzat, eta bertan ezarritako aginduak aplikatu behar zaizkio; beraz, hirugarrenekin kontratatzen duenean, lege horretako bigarren liburuko xedapenak aplikatu beharra dauka.

Hirugarrena.- Hirugarren alegazioari dagokionez, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak 19.400 euroren truke arkitekto baten zerbitzuak kontratatzeari buruzkoa den hori alegia, berriro ere errepikatzen dugu kontratazio hori egin dela Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak izaera eta zenbateko horretako kontratazioetarako ezarritako prozedurak bete gabe. Alegazioari erantsitako Gobernu Batzordearen erabakiak, arkitekto baten eta aholkulari juridiko baten zerbitzuen kontratazioari buruzkoak, soil-soilik zehazten du zerbitzu horien zuzeneko kontratazioa, baina ez du ezer ezartzen jarraitu beharreko esleipen-prozedurari buruz.

Comptos Ganberaren aburuz, udalak nahiz bere hirigintza-sozietateak kanpoko zerbitzuak kontratatzean, nahitaezkoa da jadanik aipaturiko Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako prozedurak betetzea, kontratuaren izaeraren eta bere zenbatekoaren arabera; betiere, kontratazio publikoaren giltzarri izan behar duten konkurrentzia askearen, objektibotasunaren eta gardentasunaren berme gisa.

Amaitzeko adierazi behar da ezen, Comptos Ganberaren ustez, hirigintzaren kudeaketa –udal-jarduera peto-petoa– udal-sozietateen bitartez egiten denean, sozietateok titulartasun publikokoak nahiz mistokoak izan, arriskua dagoela udalaren kudeaketan funtsezkoa den alor honetan (baliabide ekonomiko muntadunak erabiltzen baitira) gar-

dentasuna eta kontrola ez hain zorrotzak izateko. Horregatik, kasu hauetan desiragarria da garrantasun handiagoa izateko eta udalak kontrol estuagoa egiteko aukera bermatzen duten bitarteko guztiak indartzea; besteak beste, hirigintza- eta kontratu-legedian jasotako prozedurak, Foru

Komunitatean indardun direnak, bai eta jarduketa horietatik eratorritako fluxu ekonomikoen kontrol finantzarioari dagozkionak ere.

Iruñean, 2009ko otsailaren 13an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde
